

## IV

(2009ko abenduaren 1aren aurretik, EE Trataturia, EB Trataturia eta Euratom Trataturia aplikatzearen ondorioz emandako egintzak)

### 2009/147/EE ZUZENTARUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2009ko azaroaren 30ekoa,

#### basa-hegaztiak kontserbatzeari buruzkoa

(bertsio kodifikatua)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNAREN  
KONTSEILUAK

Europako Erkidegoa eratzekeo Trataturia eta, bereziki, haren 175.1 artikulua aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute

(1),  
Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu diote (2),

Eta alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Basa-hegaztiak kontserbatzeari buruzko Kontseiluaren 1979ko apirilaren 2ko 79/409/EEE Zuzentaraua (3) behin baino gehiagotan aldatu da, funtsean aldatu ere (4). Aргitasunaren mesedetan, komeni da zuzentarau hori kodifikatzea.

(2) Ingurumenaren arloan Europako Erkidegoaren Seigarren Ekintza Programa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 22ko 1600/2002/EE Erabakiak (5) ekintza jakin batzuk jasotzen ditu biodibertsitateari begira, hegaztien eta haien habitaten babesa barne direla.

(3) Estatu kideen lurralde europarrean naturan aske bizi ohi diren hegazti-espezie asko eta asko populazio-beherakada handia sufritzen ari dira; kasu batzuetan oso denbora laburrean, gainera. Horrek arrisku larrian jartzen du ingurumenaren kontserbazioa, batez ere oreka biologikoa hausteko mehatxua delako.

(1) 2009ko ekainaren 10eko Irizpena (Aldizkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea).

(2) Europako Parlamentuaren 2009ko urriaren 20ko Irizpena (oraindik Aldizkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 26ko Erabakia..

(3) EBAO L 103, 1979-04-25, 1. or.

(4) Ikus VI. eranskineko A zatia.

(5) EBAO L 242, 2002-09-10, 1. or.

(4) Estatu kideen lurralde europarrean naturan aske bizi ohi diren hegazti-espezie asko hegazti migratzaileak dira. Espezie horiek guztion ondarea dira, eta haien babes eraginkorra mugaz gaindiko ingurumen-arazoa da, guztion erantzukizuna eskatzen duena.

(5) Estatu kideen lurralde europarrean naturan aske bizi ohi diren hegazti-espezieen kontserbazioa beharrezkoa da, bizi-baldintzak hobetzeko arloan eta garapen jasangarria bultzatzeko bidean Erkidegoak dituen helburuak lortzeko.

(6) Hartu beharreko neurriak hegazti-populazioaren mailan eragin dezaketen faktoreei aplikatu behar zaizkie; hau da, giza jardueraren ondorioei eta, bereziki, hegaztien habitatak suntsitzeari eta kutsatzeari, hegaztiok harrapatzeari eta hiltzeari, eta horrek dakarren salerosketari. Neurri horien zorrotasun-maila kontserbazio-politika baten esparruan espezie bakoitzaren egoerari egokitu beharra dago.

(7) Kontserbazioaren helburua natur baliabideen epe luzeko babesa eta kudeaketa da, Europako herrien ondarearen parte gisa. Kontserbazioak baliabide horiek erregulatzeko bidea ematen du, bai eta haien ustiaketa arautzeko ere, espezieen oreka naturala iraunarazteko eta egokitzekeo beharrezkoak diren neurrietan oinarrituta, betiere arrazoizko mugen barruan.

(8) Habitat-dibertsitate eta -azalera aski bat babestea, iraunaraztea edo lehengoratzea ezinbestekoak dira hegazti-espezie guztiak kontserbatzeko. Hegazti-espezie jakin batzuek beren habitatai buruzko kontserbazio-neurri berezi batzuk behar dituzte, beren banaketa-arearen barruan biziraun eta ugaltzen direla ziurtatzeko. Neurri horiek espezie migratzaileak ere kontuan hartu behar dituzte, eta elkarrekin koordinatuta egon behar dute sare koherente bat eratzeari begira.

- (9) Merkataritza-interesek harrapaketa-kopuruaren gainean presio kaltegarriak izan ez dezaten, beharrezkoa da komertzializazioa debekatzea oro har eta soil-soilik salbuestea beren egoera biologikoaren argitan horretarako aukera ematen duten espezieak, eskualdez eskualde nagusi diren baldintza espezifikoak aintzat hartuta.
- (10) Erkidego osoan duten populazio-maila altuagatik, banaketa geografikoagatik eta ugalketa-tasagatik, espezie jakin batzuk ehiza-espezieak izan daitezke, eta onartzeko moduko ustiaketatzat hartu behar da hori, baldin muga zehatz batzuk jartzen badira. Ehiza-mota hori bateragarria izan behar da espezie horien populazioak maila egoki batean irautearekin.
- (11) Debekatu egingo da harrapaketa edo hilketa masibo edo ez-selektiborako trepetak, instalazio edo metodoak erabiltzea, baita ibilgailu jakin batzuetatik jazartzea ere, gehiegizko presioa sortzen dutelako edo sor dezaketelako eraginpeko espezieen populazio-kopuruetan.
- (12) Egoera espezifiko jakin batzuek garrantzi berezia izan dezaketenez, salbuesteko aukera aurreikus daiteke, baldintza zehatz batzuk jarrita eta Batzordeak gainbegiratuta.
- (13) Hegaztien kontserbazioak, bereziki hegazti migratzaileenak, arazo batzuk planteatzen ditu oraindik ere, ikerketa zientifikoak eskatzen dituztenak. Ikerketa horiek, gainera, hartu diren neurrien eraginkortasuna ebaluatuko dute.
- (14) Estatu kideen lurralde europarrean naturan aske bizi ez diren hegazti-espezieak sartuz gero, arretaz zainduko da, Batzordeari kontsulta eginez, horrek ez duela kalterik sortuko bertako flora eta faunan.
- (15) Hiru urtean behin, sintesi-txosten bat landu eta helaraziko die estatu kideei Batzordeak. Zuzentarau honen indarrez abian jarri dituzten arau nazionalak buruz estatu kideek bidalitako informazioan oinarrituko da txostena.
- (16) Zuzentarau hau betetzeko beharrezko neurriak onartu behar dira, Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiari jarraiki, hau da, Batzordeari esleituriko eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituen erabakiari jarraiki (1).
- (17) Bereziki komeni da Batzordeari eskumenak ematea eranskin zehatz batzuk aldatzeko, aurrerapen zientifiko eta teknikoaren argitan. Neurri horiek orokorrak direnez gero, eta haien helburua zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea denez gero, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozedura erabiliko da neurriok emateko.

- (18) Zuzentarau honek ez du eraginik izango estatu kideek zuzentzarauak beren estatuko zuzenbidera ekartzeko dituzten epeei buruzko betebeharreran (VI. eranskineko B zatian agertzen dira epe horiek).

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

*1.  
artikulua*

1. Zuzentarau honen gaia da Tratatuaren eraginpean dauden estatu kideen lurralde europarrean naturan aske bizi ohi diren hegazti-espezie guztien kontserbazioa. Xedea du espezie horiek babestea, kudeatzea eta erregulatzea, eta arauak ezartzen ditu haiek ustiatzeko.

2. Zuzentzaraua hegaztiei, haien arrautzei, habiei eta habitatei aplikatuko zaie.

*2.  
artikulua*

Estatu kideek behar diren neurri guztiak hartuko dituzte lehenengo artikuluan aipatzen diren hegazti-espezie guztien populazioak bereziki eskakizun ekologiko, zientifiko eta kulturaren arabera maila egoki batean iraunarazteko edo egokitzeko, baina eskakizun ekonomiko eta aisialdikoak ere kontuan hartuta.

*3.  
artikulua*

1. Bigarren artikuluan adierazitako eskakizunak aintzat hartuta, lehenengo artikuluan aipatzen diren hegazti-espezie guztientzako habitat-dibertsitate eta -azalera aski bat babesteko, iraunarazteko edo lehengoratzeko neurriak hartuko dituzte estatu kideek.

2. Biotopoak eta habitatak babestu, iraunarazi eta lehengoratzeko, hasteko, honako neurri hauek hartu beharko dira:

- a) babes-eremuak sortzea;
- b) eskakizun ekologikoen arabera iraunaraztea eta antolatzea babes-eremuen barruan nahiz kanpoan dauden habitatak;
- c) suntsitutako biotopoak lehengoratzeko;
- d) biotopoak sortzea.

(<sup>1</sup>) EO C 184 E, 1999-07-17koa, 23. or.

#### 4. artikulua

1. I. eranskinean aipaturako espezieei beren habitatari buruzko kontserbazio-neurri bereziak aplikatuko zaizkie, beren banaketa-arearen barruan biziraun eta ugaltzen direla ziurtatzeko.

Horretarako, kontuan izan behar ditugu hauek:

- a) galtzeko arriskuan dauden espezieak;
- b) habitaten aldaketa jakin batzuekiko kalteberak diren espezieak;
- c) bakantzat jotako espezieak, populazio txikiak dituztelako edo tokiko banaketa txikia dutelako;
- d) beren habitat berezia dela eta, arreta berezia eskatzen duten beste espezie batzuk.

Ebaluazioak egiteko, populazio-mailaren joerak eta aldaketak hartuko dira kontuan.

Zuzentaraua aplikagarria den itsasoko eta lehorreko eremu geografikoaren barruan espezie horiek kontserbatzeko egokienak diren lurraldeak –kopuruaren aldetik zein gainazalaren aldetik– babes bereziko eremu gisa sailkatuko dituzte estatu kideek.

2. Antzeko neurriak hartuko dituzte estatu kideek I. eranskinean adierazten ez diren baina gurera erregulariki iritsi ohi diren espezie migratzaileen kasuan ere, kontuan hartuta zuzentarau hau aplikagarria den itsasoko eta lehorreko eremu geografikoan dauden babes-beharrak, ugalketa, lumaberritze eta negupasarako eremuen eta migraziobideetako atsedeen-lekuen aldetik. Horretarako, estatu kideek garrantzi berezia emango diote hezeguneak babesteari; batez ere, nazioarteko garrantzia duten hezeguneak babesteari.

3. Informazio baliagarri guztiak bidaliko dizkiote estatu kideek Batzordeari, horrela behar den koordinazioari begira Batzordeak ekimenak har ditzan, 1. ataleko eremuek, alde batetik, eta 2.ekoek, beste aldetik, sare koherente bat osa dezaten, zuzentarau hau aplikagarria den itsasoko eta lehorreko eremu geografikoaren barruan espezieen babes-beharrei erantzuteko.

4. Estatu kideek behar diren neurriak hartuko dituzte 1. eta 2. paragrafoetan aipaturiko babes-eremuen barruan habitaten kutsadura edo hondatzea eta hegaztiei eragiten dieten asalduek eragozteko, esanguratsua baldin badira artikulua honetako helburuen argitan. Babes-eremu horietatik kanpo ere, habitaten kutsadura edo hondatzea eragozteko ahaleginak egingo dituzte estatu kideek.

#### 5. artikulua

7. eta 9. artikuluetan ezarritakoa eragotzi gabe, 1. artikuluko hegazti-espezie guztiak babesteko araubide orokorra jartzeko behar diren neurriak hartuko dituzte estatu kideek. Bereziki, honako debeku hauek ezarriko dira:

- a) nahita hiltzea edo harrapatzea, erabiltzen den metodoa edozein delarik ere;
- b) haien habiak eta arrautzak nahita suntsitzea edo hondatzea, eta habiak kentzea;
- c) haien arrautzak naturan biltzea eta atxikitzea, nahiz eta hutsik egon;
- d) nahita asaldatzea, bereziki ugaltzeko eta umeak hazteko garaian, asalduearen ondorioz eragin esanguratsua sortzen baldin bada zuzentarau honen helburuen argitan;
- e) ehiza eta harrapaketa debekatua duten hegazti-espezieak atxikitzea.

#### 6. artikulua

1. 2. eta 3. paragrafoetan ezarritakoa eragotzi gabe eta 1. artikuluko hegazti-espezie guztiei dagokienez, honako jarduerak hauek debekatuko dituzte estatu kideek: hegazti biziak edo hilak –bai eta erraz identifikatzeko moduko edozein hegazti-zati edo produktu eratorri ere– saltzea, salmentarako garraiatzea, salmentarako atxikitzea eta salgai jartzea.

2. 1. paragrafoko jarduerak ez dira debekatuko III. eranskineko A zatiko espezieen kasuan, baldin eta hegaztiak legearen arabera hil edo harrapatu badira edo beste bide zilegiren batez eskuratu badira.

3. Estatu kideek 1. paragrafoko jarduerak egiteko baimena eman dezakete III. eranskineko B zatiko espezieen kasuan, eta horretarako muga batzuk aurreikusi, baldin eta hegaztiak legearen arabera hil edo harrapatu badira edo beste bide zilegiren batez eskuratu badira.

Baimen hori eman nahi duten estatu kideek kontsulta egingo diote aldez aurretik Batzordeari, harekin batera aztertzeke ea kasuan kasuko espeziearen aleak merkaturatzeak ez ote duen, zantzu guztien arabera, arriskuan jartzen, edo arriskuan jartzeko bidea ematen, espezieak Erkidego osoan duen populazio-maila, banaketa geografikoa edo ugalketa-tasa. Azterketa horren ondorioz ikusten bada, Batzordearen irizpenaren arabera, baimen horrek lehen aipaturiko arriskueta bat dakarrela edo horretarako bidea eman lezakeela, behar bezala arrazoitutako gomendio bat bidaliko dio Batzordeak estatu kideari kasuan kasuko espeziearen merkaturatzea gaitzesteko. Batzordeak uste badu ez dagoela arrisku hori, horren jakitun ipiniko du estatu kidea.

*Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratuko da Batzordearen gomendioa.

Paragrafo honi jarraituz baimena ematen duen estatu kideak aldiro-aldiro egiaztatuko du betetzen diren ala ez baimena emateko eskatzen diren baldintzak.

#### 7. artikulua

1. Erkidego osoan duten populazio-maila, banaketa geografikoa eta ugalketa-tasa direla eta, II. eranskinean zerrendaturiko espezieak ehiza-espezie izan daitezke estatuko legeriaren esparruan. Estatu kideek bermatu egingo dute espezie horiek ehizatzeak ez dituela haien banaketa-arean kontserbazioaren alde egindako ahaleginak zapuztuko.

2. II. eranskineko A zatian zerrendatzen diren espezieak zuzentarau hau aplikagarria den itsasoko eta lehorreko eremu geografikoan ehizatu ahal izango dira.

3. II. eranskineko B zatian zerrendatzen diren espezieak, aldiz, eranskinean bertan aipatzen diren estatu kideetan bakarrik ehizatu ahal izango dira.

4. Estatu kideek bermatu egingo dute ezen ehizak –baita falkoneriak ere, halakorik badago–, indarrean dauden estatuko arauak aplikatuz gero, eraginpeko hegazti-espezieen arrazoizko erabilera baten eta erregulazio ekologiko orekatu baten printzipioak errespetatuko dituela, eta jarduera hori bateragarria izango dela, espezieen populazioari dagokionez eta, bereziki, espezie migratzaileei dagokienez, 2. artikulutik eratoritzen diren arauekin.

Bereziki zainduko dute ehiza-legeria aplikatzen zaien espezieak ez direla ehizatuko habia egiteko garaian, ezta ugaltzeko eta umatzeko garaian ere.

Espezie migratzaileak direnean, bereziki zainduko dute ehiza-legeria aplikatzen zaien espezieak ez direla ehizatuko ugaltzeko garaian, ez eta haien habialekuetara itzultzeko bidean ere.

Estatu kideek beren ehiza-legeria praktikan aplikatzeari buruzko informazio esanguratsu guztia bidaliko diote Batzordeari.

#### 8. artikulua

1. Zuzentarau honen esparruan hegaztiak ehizatu, harrapatu edo hiltzea dela eta, estatu kideek debekatu egingo dute harrapaketa edo hilketa masibo edo ez-selektiborako trepeta, instalazio edo metodoak erabiltzea, baita espezie bat eremu jakin batean desagertzea ekar dezaketenak ere, eta bereziki IV. eranskineko a) letran aipatzen direnak.

2. Gainera, IV. eranskineko b) letran aipatzen diren garraio-bide eta baldintzetan jazartzea debekatuko dute estatu kideek.

#### 9. artikulua

1. Estatu kideek salbuespenak egin ditzakete 5. artikulutik 8.era artekoetan, beste irtenbide egokirik ez badago, arrazoi hauek direla eta:

a) — osasun eta segurtasun publikoaren onerako,

— aire-segurtasunaren onerako,

— kalte larriak eragozteko laboreetan, abeltzaintzan, basoetan, arrantzan eta uretan,

— flora eta fauna babesteko;

b) ikerketa edo irakaskuntza helburuetarako, birpopulatze edo birsartzerako edo ekintza horiei begira egindako hazkuntzarako.

c) baimentzeko, egoera erabat kontrolatuetan eta modu selektiboan, hegazti jakin batzuen kopuru txiki batzuk harrapatzea, atxikitzea edo bestelako ustiaketa zuhur oro egitea.

2. 1. paragrafoan adierazitako salbuespenek honakoak aipatu beharko dituzte:

a) salbuespenen xede izango diren espezieak;

b) hegaztiak harrapatzeko edo hiltzeko baimendutako trepeta, instalazio edo metodoak;

c) salbuespen horietan zer arrisku egoera dauden eta zer garai eta tokitan egin ahal izango diren;

d) eskatutako baldintzak betetzen direla adierazteko gaitutako agintaria eta zer trepeta, instalazio edo metodo erabili ahal izango diren, zer mugaren barruan eta zeinek ezarri ahal izango dituen;

e) egingo diren kontrolak.

3. Estatu kideek urtero txosten bat igorriko dute Batzordera, 1. eta 2. paragrafoak aplikatzeari buruz.

4. Eskura dituen informazioak aintzat hartuta, eta bereziki 3. paragrafoari jarraiki jakinarazitakoen argitan, Batzordeak etengabe bermatuko du 1. paragrafoko salbuespenen ondorioak bateragarriak direla zuzentarau honekin.  
\$ Horretarako behar diren ekimenak abiatuko ditu.

10.  
artikulua

1. 1. artikuluan aipatutako hegazti-espezie guztiak babesteko, kudeatzeko eta ustiatzeko behar diren ikerketa eta lanak sustatuko dituzte estatu kideek. Arreta berezia jarriko da V. eranskinean zerrendaturiko gaiei buruzko ikerketa eta lanetan.

2. Estatu kideek beharrezkoa den informazio guztia bidaliko diote Batzordeari, neurri egokiak har ditzan 1. paragrafoan aipatutako ikerketa eta lanak koordinatzeari begira.

11.  
artikulua

Estatu kideek zaindu egingo dute haien lurralde europarrean naturan aske bizi ez diren hegazti-espezierik sartuz gero ez dela kalterik sortuko bertako floran eta faunan. Kasu horietan, kontsulta egingo diote Batzordeari.

12.  
artikulua

1. Hiru urtean behin –1981eko apirilaren 7tik zenbatzen hasita–, zuzentarau honi jarraituz hartutako xedapen nazionalak aplikatzeari buruzko txosten bat bidaliko dute Batzordera estatu kideek.

2. Hiru urtean behin, 1. paragrafoan adierazitako informazioan oinarritutako laburpen-txostena landuko du Batzordeak. Txosten horren zirriborroan estatu kide jakin batek emandako informazioetan oinarritutako zatia estatu kide horretako agintariei bidaliko zaie, berrets dezaten. Txostenaren azken bertsioa estatu kideei bidaliko zaie.

13.  
artikulua

Zuzentarau honi jarraiki harturiko neurrien aplikazioak ezin izango du okertu 1. artikuluan adierazitako espezie guztien kontserbazioaren oraingo egoera.

14. artikulua

Estatu kideek zuzentarau honetan jasotakoak baino babes-neurri zorrotzagoak hartu ahal izango dituzte.

15.  
artikulua

Behar diren aldaketak egingo dira I. eta V. eranskinak aurrerapen tekniko eta zientifikora egokitzeke. Neurriok zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko izango dira, eta 16.2 artikuluan ezarritako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartuko dira.

16.  
artikulua

1. Batzordeari aurrerapen tekniko eta zientifikorako komite batek lagunduko dio.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 1. paragrafotik 4.era bitartekoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta.

17.  
artikulua

Zuzentarau honek arautzen duen esparruan hartzen dituzten barne-zuzenbideko oinarritzko xedapenen testua jakinaraziko diote estatu kideek Batzordeari.

18.  
artikulua

Indargabetu egiten da 76/464/EEE Zuzentaraua, zeina VI. eranskineko A zatian adierazten diren egintzen bidez aldatua izan baita. Horrek, baina, ez ditu kentzen zuzentarauak estatuetako zuzenbidera ekartzeko VI. eranskineko B zatian azaltzen diren epeei buruz estatu kideek dituzten betebeharrak.

Indargabeturiko zuzentarauari egindako erreferentziak zuzentarau honi egindakotzat joko dira, VII. eranskinean jasotako korrespondentzia-taulari jarraiki.

19.  
artikulua

Zuzentarau hau *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hogeiei egunera jarriko da indarrean.

20.  
artikulua

Estatu kideak dira zuzentarau honen hartzaileak.

Bruselan egina, 2009ko azaroaren 30

*Europako Parlamentuaren*  
*izenean, Presidentea*  
J. BUZEK

*Kontseiluaren*  
*izenean,*  
*Presidentea*  
B. B. ASK

I. ERANSKINA

GAVIIFORMES

Gaviidae

*Gavia stellata*

*Gavia arctica*

*Gavia immer*

PODICIPEDIFORMES

Podicipedidae

*Podiceps auritus*

PROCELLARIIFORMES

Procellariidae

*Pterodroma madeira*

*Pterodroma feae*

*Bulweria bulwerii*

*Calonectris diomedea*

*Puffinus puffinus mauretanicus* (*Puffinus mauretanicus*)

*Puffinus yelkouan*

*Puffinus assimilis*

Hydrobatidae

*Pelagodroma marina*

*Hydrobates pelagicus*

*Oceanodroma leucorhoa*

*Oceanodroma castro*

PELECANIFORMES

Pelecanidae

*Pelecanus onocrotalus*

*Pelecanus crispus*

Phalacrocoracidae

*Phalacrocorax aristotelis desmarestii*

*Phalacrocorax pygmeus*

CICONIIFORMES

Ardeidae

*Botaurus stellaris*

*Ixobrychus minutus*

*Nycticorax nycticorax*

*Ardeola ralloides*

*Egretta garzetta*

*Egretta alba* (*Ardea alba*)

*Ardea purpurea*

Ciconiidae

*Ciconia nigra*

*Ciconia ciconia*

Threskiornithidae

*Plegadis falcinellus*

*Platalea leucorodia*

PHOENICOPTERIFORMES

Phoenicopteridae

*Phoenicopterus ruber*

ANSERIFORMES

Anatidae

*Cygnus bewickii* (*Cygnus columbianus bewickii*)

*Cygnus cygnus*

*Anser albifrons flavirostris* *Anser*

*erythropus*

*Branta leucopsis*

*Branta ruficollis*

*Tadorna ferruginea*

*Marmaronetta angustirostris*

*Aythya nyroca*

*Polysticta stelleri*

*Mergus albellus* (*Mergellus albellus*)

*Oxyura leucocephala*

FALCONIFORMES

Pandionidae

*Pandion haliaetus*

Accipitridae

*Pernis apivorus*

*Elanus caeruleus*

*Milvus migrans*

*Milvus milvus*

*Haliaeetus albicilla*

*Gypaetus barbatus*

*Neophron percnopterus*

*Gyps fulvus*

*Aegypius monachus*

*Circaetus gallicus*

*Circus aeruginosus*

*Circus cyaneus*

*Circus macrourus*

*Circus pygargus*

*Accipiter gentilis arrigonii*

*Accipiter nisus granti*

*Accipiter brevipes*

*Buteo rufinus*

*Aquila pomarina*

*Aquila clanga*

*Aquila heliaca*

*Aquila adalberti*

*Aquila chrysaetos*  
*Hieraaetus pennatus*  
*Hieraaetus fasciatus*

#### Falconidae

*Falco naumanni*  
*Falco vespertinus*  
*Falco columbarius*  
*Falco eleonora*  
*Falco biarmicus*  
*Falco cherrug*  
*Falco rusticolus*  
*Falco peregrinus*

#### GALLIFORMES

##### Tetraonidae

*Bonasa bonasia*  
*Lagopus mutus pyrenaicus*  
*Lagopus mutus helveticus*  
*Tetrao tetrix tetrix*  
*Tetrao urogallus*

##### Phasianidae

*Alectoris graeca*  
*Alectoris barbara*  
*Perdix perdix italica*  
*Perdix perdix hispaniensis*

#### GRUIFORMES

##### Turnicidae

*Turnix sylvatica*

##### Gruidae

*Grus grus*

##### Rallidae

*Porzana porzana*  
*Porzana parva*  
*Porzana pusilla*  
*Crex crex*  
*Porphyrio porphyrio*  
*Fulica cristata*

##### Otididae

*Tetrax tetrax*  
*Chlamydotis undulata*  
*Otis tarda*

#### CHARADRIIFORMES

##### Recurvirostridae *Himantopus*

*himantopus*  
*Recurvirostra avosetta*

##### Burhinidae

*Burhinus oedienemus*

#### Glareolidae

*Cursorius cursor*  
*Glareola pratincola*

#### Charadriidae

*Charadrius alexandrinus*  
*Charadrius morinellus (Eudromias morinellus) Pluvialis*  
*apricaria*  
*Hoplopterus spinosus*

#### Scolopacidae

*Calidris alpina schinzii*  
*Philomachus pugnax*  
*Gallinago media*  
*Limosa lapponica*  
*Numenius tenuirostris*  
*Tringa glareola*  
*Xenus cinereus (Tringa cinerea)*  
*Phalaropus lobatus*

#### Laridae

*Larus melanocephalus*  
*Larus genei*  
*Larus audouinii*  
*Larus minutus*

#### Sternidae

*Gelochelidon nilotica (Sterna nilotica)*  
*Sterna caspia*  
*Sterna sandvicensis*  
*Sterna dougallii*  
*Sterna hirundo*  
*Sterna paradisaea*  
*Sterna albifrons*  
*Chlidonias hybridus*  
*Chlidonias niger*

#### Alcidae

*Uria aalge ibericus*

#### PTEROCLIFORMES

##### Pteroclididae

*Pterocles orientalis*  
*Pterocles alchata*

#### COLUMBIFORMES

##### Columbidae

*Columba palumbus azorica*  
*Columba trocaz*  
*Columba bollii*  
*Columba junoniae*

STRIGIFORMES

Strigidae

- Bubo bubo*
- Nyctea scandiaca*
- Surnia ulula*
- Glaucidium passerinum*
- Strix nebulosa*
- Strix uralensis*
- Asio flammeus*
- Aegolius funereus*

CAPRIMULGIFORMES

Caprimulgidae

- Caprimulgus europaeus*

APODIFORMES

Apodidae

- Apus caffer*

CORACIIFORMES

Alcedinidae

- Alcedo atthis*

Coraciidae

- Coracias garrulus*

PICIFORMES

Picidae

- Picus canus*
- Dryocopus martius*
- Dendrocopos major canariensis*
- Dendrocopos major thanneri*
- Dendrocopos syriacus*
- Dendrocopos medius*
- Dendrocopos leucotos*
- Picoides tridactylus*

PASSERIFORMES

Alaudidae

- Chersophilus duponti*
- Melanocorypha calandra*
- Calandrella brachydactyla*
- Galerida theklae*
- Lullula arborea*

Motacillidae

- Anthus campestris*

Troglodytidae

- Troglodytes troglodytes fridariensis*

Muscicapidae (Turdinae)

- Luscinia svecica*
- Saxicola dacotiae*
- Oenanthe leucura*
- Oenanthe cyprica*
- Oenanthe pleschanka*

Muscicapidae (Sylviinae)

- Acrocephalus melanopogon*
- Acrocephalus paludicola*
- Hippolais olivetorum* *Sylvia*
- sarda*
- Sylvia undata*
- Sylvia melanothorax*
- Sylvia rueppelli*
- Sylvia nisoria*

Muscicapidae (Muscicapinae)

- Ficedula parva*
- Ficedula semitorquata*
- Ficedula albicollis*

Paridae

- Parus ater cypriotes*

Sittidae

- Sitta krueperi*
- Sitta whiteheadi*

Certhiidae

- Certhia brachydactyla dorotheae*

Laniidae

- Lanius collurio*
- Lanius minor*
- Lanius nubicus*

Corvidae

- Pyrrhonorax pyrrhonorax*

Fringillidae (Fringillinae)

- Fringilla coelebs ombriosa*
- Fringilla teydea*

Fringillidae (Carduelinae)

- Loxia scotica*
- Bucanetes githagineus*
- Pyrrhula murina* (*Pyrrhula pyrrhula murina*)

Emberizidae (Emberizinae)

- Emberiza cineracea*
- Emberiza hortulana*
- Emberiza caesia*



## II. ERANSKINA

### A ZATIA

#### ANSERIFORMES

##### Anatidae

*Anser fabalis*  
*Anser anser*  
*Branta canadensis*  
*Anas penelope*  
*Anas strepera*  
*Anas crecca*  
*Anas platyrhynchos*  
*Anas acuta*  
*Anas querquedula*  
*Anas clypeata*  
*Aythya ferina*  
*Aythya fuligula*

#### GALLIFORMES

##### Tetraonidae

*Lagopus lagopus scoticus et hibernicus*  
*Lagopus mutus*

##### Phasianidae

*Alectoris graeca*  
*Alectoris rufa*  
*Perdix perdix*  
*Phasianus colchicus*

#### GRUIFORMES

##### Rallidae

*Fulica atra*

#### CHARADRIIFORMES

##### Scolopacidae

*Lymnocyptes minimus*  
*Gallinago gallinago*  
*Scolopax rusticola*

#### COLUMBIFORMES

##### Columbidae

*Columba livia*  
*Columba palumbus*

### B ZATIA

#### ANSERIFORMES

##### Anatidae

*Cygnus olor*  
*Anser brachyrhynchus*  
*Anser albifrons*  
*Branta bernicla* *Netta*  
*rufina*  
*Aythya marila*  
*Somateria mollissima*  
*Clangula hyemalis*  
*Melanitta nigra*  
*Melanitta fusca*  
*Bucephala clangula*  
*Mergus serrator*  
*Mergus merganser*

#### GALLIFORMES

##### Meleagridae

*Meleagris gallopavo*

##### Tetraonidae

*Bonasa bonasia*  
*Lagopus lagopus lagopus*  
*Tetrao tetrix*  
*Tetrao urogallus*

##### Phasianidae

*Francolinus francolinus*  
*Alectoris barbara*  
*Alectoris chukar*  
*Coturnix coturnix*

#### GRUIFORMES

##### Rallidae

*Rallus aquaticus*  
*Gallinula chloropus*

#### CHARADRIIFORMES

##### Haematopodidae

*Haematopus ostralegus*

Charadriidae

*Pluvialis apricaria*

*Pluvialis squatarola*

*Vanellus vanellus*

Scolopacidae

*Calidris canutus*

*Philomachus pugnax*

*Limosa limosa*

*Limosa lapponica*

*Numenius phaeopus*

*Numenius arquata*

*Tringa erythropus*

*Tringa totanus*

*Tringa nebularia*

Laridae

*Larus ridibundus*

*Larus canus*

*Larus fuscus*

*Larus argentatus*

*Larus cachinnans*

*Larus marinus*

COLUMBIFORMES

Columbidae

*Columba oenas*

*Streptopelia decaocto*

*Streptopelia turtur*

PASSERIFORMES

Alaudidae

*Alauda arvensis*

Muscicapidae

*Turdus merula*

*Turdus pilaris*

*Turdus philomelos*

*Turdus iliacus*

*Turdus viscivorus*

Sturnidae

*Sturnus vulgaris*

Corvidae

*Garrulus glandarius*

*Pica pica*

*Corvus monedula*

*Corvus frugilegus*

*Corvus corone*



	BE	BG	CZ	DK	DE	EE	EL	ES	FR	IE	IT	CY	LV	LT	LU	HU	MT	NL	AT	PL	PT	RO	SI	SK	FI	SE	UK
<i>Calidris canutus</i>				+					+																		
<i>Philomachus pugnax</i>									+		+						+										
<i>Limosa limosa</i>				+					+																		
<i>Limosa lapponica</i>				+					+																		+
<i>Numenius phaeopus</i>				+					+																		+
<i>Numenius arquata</i>				+					+	+																	+
<i>Tringa erythropus</i>				+					+																		
<i>Tringa totanus</i>				+					+		+																+
<i>Tringa nebularia</i>				+					+																		
<i>Larus ridibundus</i>	+			+	+	+		+								+			+					+		+	
<i>Larus canus</i>				+	+	+																			+	+	
<i>Larus fuscus</i>				+	+																						
<i>Larus argentatus</i>	+			+	+	+							+													+	+
<i>Larus cachinnans</i>								+								+											
<i>Larus marinus</i>				+	+	+																			+	+	
<i>Columba oenas</i>							+	+	+			+										+	+				
<i>Streptopelia decaocto</i>		+	+	+	+				+			+				+			+			+		+			
<i>Streptopelia turtur</i>		+					+	+	+		+	+					+		+		+	+					
<i>Alauda arvensis</i>							+		+		+	+					+					+					
<i>Turdus merula</i>							+		+		+	+					+				+					+	
<i>Turdus pilaris</i>						+	+	+	+		+	+					+		+		+	+			+	+	
<i>Turdus philomelos</i>							+	+	+		+	+					+				+	+					
<i>Turdus iliacus</i>							+	+	+		+	+					+				+	+					
<i>Turdus viscivorus</i>							+	+	+			+					+				+	+					
<i>Sturnus vulgaris</i>		+					+	+	+			+				+	+				+	+					
<i>Garrulus glandarius</i>	+			+	+				+		+				+	+		+			+	+	+	+		+	+
<i>Pica pica</i>	+	+	+	+	+		+	+	+		+	+	+		+	+		+			+	+	+	+	+	+	+
<i>Corvus monedula</i>		+					+	+				+						+				+			+	+	+

	BE	BG	CZ	DK	DE	EE	EL	ES	FR	IE	IT	CY	LV	LT	LU	HU	MT	NL	AT	PL	PT	RO	SI	SK	FI	SE	UK
<i>Corvus frugilegus</i>		+				+			+					+		+						+		+		+	+
<i>Corvus corone</i>	+	+	+	+	+	+	+	+	+		+	+	+	+	+	+		+			+	+	+	+	+	+	+

AT = Österreich, BE = Belgique/België, BG = България, CY = Κύπρος, CZ = Česká republika, DE = Deutschland, DK = Danmark, EE = Eesti, ES = España, FI = Suomi/Finland, FR = France, EL = Ελλάδα, HU = Magyar ország, IE = Ireland, IT = Italia, LT = Lietuva, LU = Luxembourg, LV = Latvija, MT = Malta, NL = Nederland, PL = Polska, PT = Portugal, RO = România, SE = Sverige, SI = Slovenija, SK = Slovensko, UK = United Kingdom

+ = 7.3 artikularen arabera, zerrendatutako espezieak chizatzeke baimena eman dezaketen estatu kideak.

III. ERANSKINA

A ZATIA

ANSERIFORMES

*Alectoris barbara*

Anatidae

*Perdix perdix*

*Anas platyrhynchos*

GALLIFORMES

*Phasianus colchicus*

Tetraonidae

*Lagopus lagopus lagopus, scoticus et hibernicus*

COLUMBIFORMES

Phasianidae

Columbidae

*Alectoris rufa*

*Columba palumbus*

B ZATIA

ANSERIFORMES

*Tetrao tetrix britannicus Tetrao*

Anatidae

*urogallus*

*Anser albifrons albifrons*

*Anser anser*

GRUIFORMES

*Anas penelope*

Rallidae

*Anas crecca*

*Fulica atra*

*Anas acuta*

CHARADRIIFORMES

*Anas clypeata*

Charadriidae

*Aythya ferina*

*Pluvialis apricaria*

*Aythya fuligula*

*Aythya marila*

Scolopacidae

*Somateria mollissima*

*Lymnocyptes minimus*

*Melanitta nigra*

GALLIFORMES

Tetraonidae

*Gallinago gallinago*

*Lagopus mutus*

*Scolopax rusticola*

—————

#### IV. ERANSKINA

- a) — Lakioak (Finlandian eta Suedian salbu, *Lagopus lagopus lagopus* eta *Lagopus mutus* 58° N-ko latitudetik gora harrapatzeko), likak, amuak, apeu gisako hegazti itsutu edo mutilatu biziak, tresna grabatzaileak, tresna elektrokutatzaileak.
  - Argi-iturri artifizialak, ispiluak, ituak argiztatzeko tresnak, irudi-handigailu edo irudi-bihurgailu elektronikodun hornitutako bisore gauez tiro egitekoak.
  - Lehergaiak.
  - Sareak, zepoak, jaki pozoidunak edo lasaigarriak.
  - Arma erdiautomatikoak edo automatikoak, kargadoreak bi kartutxo baino gehiago har baditzake.
- b) — Hegazkinak, ibilgailu automobilak.
  - Orduko 5 kilometrotik gorako abiaduraz dabiltzan ontziak. Itsas zabalean, segurtasun arrazoiak direla medio, orduko 18 kilometrorainoko abiadura duten ontzi motordunak baimendu ahalko dituzte estatu kideek. Estatu kideek baimen horien berri emango diote Batzordeari.

---

#### V. ERANSKINA

- a) Galtzeko arriskuan edo banaketa geografikoaren arabera arrisku berezian dauden espezieen zerrenda nazionala egitea.
- b) Migrazio garaian, negualdian eta habiak egiteko garaian espezie migratzaileentzat garrantzi berezia duten eremuen zentsua eta deskribapen ekologikoa.
- c) Hegazti migratzaileen populazio-mailari buruzko datuak biltzea, eraztunketaren emaitzak erabiliz.
- d) Hegaztiak harrapatzeko metodoek populazioetan duten eragina zehaztea.
- e) Metodo ekologikoak lantzea eta garatzea, hegaztiak egiten dituzten kalteei aurre egiteko.
- f) Espezie jakin batzuek kutsadura-adierazle gisa duten papera zehaztea.
- g) Kutsadura kimikoak hegazti-espezieen populazioetan sortzen duen kaltea ikertzea.

VI. ERANSKINA

A ZATIA

**INDARGABETURIKO ZUZENTARAUAK ETA ALDAKETAK**

(18. artikuluan bildutakoak)

Kontseiluaren 79/409/EEE  
Zuzentaraua (EO L 103, 1979-04-  
25, 1. or.)

1979ko Atxikitze Akta, I. eranskina, XIII puntua (EO  
L 291, 1979-11-19, 111. or.)

Kontseiluaren 81/854/EEE Zuzentaraua  
(EO L 319, 1981-11-07, 3. or.)

Batzordearen 85/411/EEE Zuzentaraua  
(EO L 233, 1985-08-30, 33. or.)

1985eko Atxikitze Akta, I. eranskina, X.1.h) eta X.6  
puntuak  
(EO L 302, 1985-11-15, 218. or.)

Kontseiluaren 86/122/EEE Zuzentaraua  
(EO L 100, 1986-04-16, 22. or.)

Batzordearen 91/244/EEE Zuzentaraua  
(EO L 115, 1991-05-08, 41. or.)

Kontseiluaren 94/24/EE  
Zuzentaraua (EO L 164, 1994-06-  
30, 9. or.)

1994ko Atxikitze Akta, I. eranskina, VIII.E.1 puntua  
(EO C 241, 1994-08-29, 175. or.)

Batzordearen 97/49/EE Zuzentaraua  
(EO L 223, 1997-08-13, 9. or.)

Kontseiluaren 807/2003/EE Erregelamendua,  
(EO L 122, 2003-05-16, 36. or.)

III. eranskina, 29. puntua baino ez.

2003ko Atxikitze Akta, II. eranskina, 16.C.1 puntua (EO  
L 236, 2003-09-23, 667 or.)

Kontseiluaren 2006/105/EE  
Zuzentaraua (EO L 363, 2006-12-20,  
368. or.)

Bakarrik 1. artikuluan 79/409/EEE Zuzentaruari egiten  
zaion aipamenari dagokionez eta eranskineko A.1 puntuari  
dagokionez

2008/102/EE Zuzentaraua, Europako  
Parlamentuarena eta Kontseiluarena  
(EO L 323, 2008-12-03, 31. or.)



B ZATIA  
**TRANSPOSIZIO EPEAK**  
(18. artikuluan bildutakoak)

Zuzentaraua	Aldatzeko epea
79/409/EEE	1981eko apirilaren 7a
81/854/EEE	—
85/411/EEE	1986ko uztailaren 31
86/122/EEE	—
91/244/EEE	1992ko uztailaren 31
94/24/EE	1995eko irailaren 29a
97/49/EE	1998ko irailaren 30a
2006/105/EE	2007ko urtarrilaren 1a
2008/102/EE	—

## VII. ERANSKINA

## KORRESPONDENTZIA TAULA

79/409/EEE Zuzentaraua	Oraingo zuzentaraua
1. artikulua, 1. eta 2. paragrafoak	1. artikulua, 1. eta 2. paragrafoak
1. artikulua, 3. paragrafoa	—
2. artikulutik 5.era	2. artikulutik 5.era
6. artikulua, 1., 2. eta 3. paragrafoak	6. artikulua, 1., 2. eta 3. paragrafoak
6. artikulua, 4. paragrafoa	—
7. artikulua, 1., 2. eta 3. paragrafoak	7. artikulua, 1., 2. eta 3. paragrafoak
7. artikulua, 4. paragrafoa, lehenengo esaldia	7. artikulua, 4. paragrafoa, lehenengo lerrokada
7. artikulua, 4. paragrafoa, bigarren esaldia	7. artikulua, 4. paragrafoa, bigarren lerrokada
7. artikulua, 4. paragrafoa, hirugarren esaldia	7. artikulua, 4. paragrafoa, hirugarren lerrokada
7. artikulua, 4. paragrafoa, laugarren esaldia	7. artikulua, 4. paragrafoa, laugarren lerrokada
8. artikulua	8. artikulua
9. artikulua, 1. paragrafoa	9. artikulua, 1. paragrafoa
9. artikulua, 2. paragrafoa, sarrerako esaldia	9. artikulua, 2. paragrafoa, sarrerako esaldia
9. artikulua, 2. paragrafoa, lehen gidoia	9. artikulua, 2. paragrafoa, a) idatzi-zatia
9. artikulua, 2. paragrafoa, bigarren gidoia	9. artikulua, 2. paragrafoa, b) idatzi-zatia
9. artikulua, 2. paragrafoa, hirugarren gidoia	9. artikulua, 2. paragrafoa, c) idatzi-zatia
9. artikulua, 2. paragrafoa, laugarren gidoia	9. artikulua, 2. paragrafoa, d) idatzi-zatia
9. artikulua, 2. paragrafoa, bosgarren gidoia	9. artikulua, 2. paragrafoa, e) idatzi-zatia
9. artikulua, 3. paragrafoa	9. artikulua, 3. paragrafoa
9. artikulua, 4. paragrafoa	9. artikulua, 4. paragrafoa
10. artikulua, 1. paragrafoa	10. artikulua, 1. paragrafoa
10. artikulua, 2. paragrafoa, lehen esaldia	10. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren esaldia
10. artikulua, 2. paragrafoa, bigarren esaldia	10. artikulua, 2. paragrafoa
11. artikulutik 15.era	11. artikulutik 15.era
16. artikulua, 1. paragrafoa	—
17. artikulua	16. artikulua
18. artikulua, 1. paragrafoa	—
18. artikulua, 2. paragrafoa	17. artikulua

79/409/EEE Zuzentaraua	Oraingo zuzentaraua
—	18. artikulua
—	19. artikulua
19. artikulua	20. artikulua
I. eranskina	I. eranskina
II/1 eranskina	II. eranskina, A zatia
II/2 eranskina	II. eranskina, B zatia
III/1 eranskina	III. eranskina, A zatia
III/2 eranskina	III. eranskina, B zatia
IV. eranskina	IV. eranskina
V. eranskina	V. eranskina
—	VI. eranskina
—	VII. eranskina